

**Batxilergoko Sari Bereziak 2024/2025 Premios Extraordinarios de Bachillerato**

EZ SINATU ETA EZ JARRI IZENA / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE

IDENTIFIKAZIO-KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO

KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN

ARTE ESZENIKOAK II**ARTES ESCÉNICAS II****Baloratzeko irizpide orokorrak**

Honako hauek baloratuko dira: erantzunen zuzentasuna, azalpenaren edo/eta ekoizpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun linguistikoa.

Criterios generales de valoración

Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición y/o producción, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística.

Baloratzeko irizpide espezifikoak

- Pertsonaien ekintza dramatikoa, gatazkak eta egoerak ezagutzen ditu, eta sakondu egiten du haietan.
- Badaki antzezleak zer baliabide eta zer antzezpente-teknika dituen aukeran pertsonaiak sortzeko, eta aplikatu egiten ditu.
- Abiapuntuko materialarekin koherenteak diren espazio eszeniko-eszenografikoak proposatu eta garatzen ditu.
- Proposamen originalak egin eta planteatzen ditu, esanahi eszenikoa duten askotariko kodeei erreparatuta.

Criterios específicos de valoración

- Conoce y profundiza en la acción dramática de los personajes, sus conflictos y sus situaciones.
- Conoce y aplica los diferentes instrumentos y técnicas interpretativas que el intérprete tiene a su disposición para la creación de personajes.
- Propone y desarrolla espacios escénicos-escenográficos coherentes con el material de partida.
- Realiza y plantea propuestas originales atendiendo a los diferentes códigos de significación escénica.

1. ariketa (3 puntu)

– ANTIGONA: Neuk lurperatuko dut. Ederra izango da lurperatuaz batera hiltzea. Harekin etzango naiz, maitea maitearekin, krimen errukitsua eginez. Izan ere, denbora luzeagoz atsegindu behar ditut behekoak, hemengoak baino. Han betiko atsedena izango dut.

Pasarte horretan, Antigonaren dilema morala eta autoritatearen aurkako jarrera azaltzen dira: bizidunekin dituen betebeharren gainetik jartzen du hildakoenganako leialtasuna.

Hitz horietatik abiatuta, idatzi, 15 lerroan gehienez, Antigona pertsonaiaren barne-bakarrizketa: bizi duen egoera horretan, zer pentsamendu darabil bere artean?

1^{er} ejercicio (3 puntos)

– ANTÍGONA: Yo le enterraré. Hermoso será morir haciéndolo. Yaceré con él, al que amo y me ama, tras cometer un piadoso crimen, ya que es mayor el tiempo que debo agradar a los de abajo que a los de aquí. Allí reposaré para siempre.

Este fragmento refleja el dilema moral de Antígona y su actitud de resistencia frente a la autoridad, situando la lealtad hacia los muertos por encima de los deberes hacia los vivos.

Partiendo de estas palabras, escribe, en un máximo de 15 líneas, el monólogo interior del personaje de Antígona: ¿qué pensamientos están pasando por su mente en la situación que está viviendo?

2. ariketa (3 puntu)

Azaldu *Antigona* antzezlanaren zuzentzeko ardura izango bazenu zer argibide emango zenizkiokeen Antigonaren papera antzeztuko duen aktoreari, pertsonaia eraikitzeko, alde psikologikotik zein fisikotik.

2^o ejercicio (3 puntos)

Si tuvieras la responsabilidad de dirigir la obra *Antígona*, explica qué indicaciones darías a la actriz que interpretará el papel de Antígona para construir su personaje, tanto a nivel psicológico como físico.

3. ariketa (4 puntu)

Eszena Tebaso erregearen jauregiaren aurrealdean gertatzen da. Egunsentiko lehen argiak ageri dira. Antigona eta haren ahizpa Ismene irteten dira jauregitik.

Antigonaren hasierako ohar eszeniko horretatik abiatuta, garatu eszenaratzeproposamen oso bat, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

1. Eszenografia. Zer motatako espazioa, egiturak eta materialak erabiliko zenituzke ingurunea irudikatzeko?
2. Jantziak. Nola azaleratuko lituzke jantziteriak Antigona pertsonaiaren gizarte-estatusa eta barruko gatazka?
3. Soinu-espazioa. Zer motatako musika edo soinu-efektuak erabiliko zenituzke eszena osatzeko?
4. Argiztapena. Nola erabiliko zenuke argia giroa sortzeko eta esanahi dramatikoa indartzeko?

3^{er} ejercicio (4 puntos)

La escena tiene lugar delante del palacio real de Tebas. Primeras luces de madrugada. Salen de palacio Antígona y su hermana Ismene.

A partir de esta acotación inicial de *Antígona*, desarrolla una propuesta escénica completa que contemple los siguientes aspectos:

1. Escenografía: ¿Qué tipo de espacio, estructuras y materiales utilizarías para representar el entorno?
2. Vestuario: ¿Cómo reflejaría el vestuario el estatus social y el conflicto interno del personaje de Antígona?
3. Espacio sonoro: ¿Qué tipo de música o efectos sonoros emplearías para acompañar la escena?
4. Iluminación: ¿Cómo utilizarías la luz para construir atmósferas y reforzar el significado dramático?